



UZTAILEKO HAURTZAINDEGIA (2019)

Familia, lana eta nork bere bizitza bateragarri egiteko arreta zerbitzua. Eguesibarren erroldatuta dauden 1 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendua. Erroldatuta ez dauden pertsonak ere ematen ahalko dute izena, baldin eta leku librerik gelditzen bada.

TOKIA: Udalaren III. Haur Eskola – Tangorri (Garajonay kalea, 6, Sarriguren)

EGUNAK, ORDUTEGIAK ETA TXANDAK: zerbitzua uztailaren 1etik 26ra emanen da, asteka txandakatuz:

- 1. astea: uztailak 1-5.
- 2. astea: uztailak 8-12.
- 3. astea: uztailak 15-19.
- 4. astea: uztailaren 22-26.

ZERBITZUAREN ORDUTEGIA: 07:30etik 16:00etara. Sarrera: 07:30etik 09:00etara.

- Jardunaldi osoa: haur bakoitza gehienez 8 orduz egon daiteke egunean.
- Jardunaldi murriztua: haur bakoitza gehienez 5 orduz egon daiteke egunean.

Haurra hartzeko ordua: 12:30etik 13:30era hartzen ahalko da egunero, jangela erabiltzen ez bada.

LEKU KOPURUA: 64 leku asteko, adin-taldean arabera banatuta:

TALDEAK	ADIN-TARTEAK	JAIOTZE-DATAK
Txikiak	1 eta 2 urte eta erdi bitartekoak	01/01/2017-30/06/2018
Ertainak	2 urte eta erdi eta 4 urte eta erdi bitartekoak	01/01/2015-31/12/2016
Helduak	4 urte eta erdi eta 6 urte eta 11 hilabete bitartekoak	31/07/2012-31/12/2014

PREZIOAK:

- 84 € astean (jardunaldi osoa, jantoki zerbitzuarekin)
- 30 € astean (jardunaldi murriztua, jantokirik gabe)

*Tarifa hobaridunak badaude.

IZEN-EMATEA:

- **LEKUA ESKATZEA:** maiatzaren 15etik 24ra izena emateko eskaera eginen da udal webgunean dagoen formularioa betez, hautatu nahi den zerbitzuaren asteak adieraziz. FAZEN eta liburutegian ordenagailu batzuk jarriko dira, nahi duenak erabili ahal izateko. Izena emateko epea amaitutakoan, **zozketa eginen da astean eta familia unitatean arabera**. SMS bidez jakinaraziko zaie lekua lortu dutenei.



- **IZENA BEHIN BETIKO EMATEA: ekainaren 3tik 7ra FAZen** (Urbasa kalea, 129, Sarriguren), 09:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Izen-emate fitxa beteta eta sinatuta (udal webgunean eta FAZen eskuragarri)
 - Haurraren osasun-txartelaren kopia.

Gurasoak NAN aurkeztuz identifikatu beharko dira izena ematerakoan. Beste ahaideren batek egin behar badu, baimen sinatua eta aitaren, amaren edo tutorearen NANaren kopia aurkeztu beharko du.

Erroldatu gabeko **familiek ekainaren 12, 13 eta 14an** eman ahalko dute izena, baldin eta lekuak sobera badaude.

ORDAINKETA: ordainketa txartela bidez eginen da izena emateko prozesuan zehar. **Lekua esleituko da ordainketa egin eta dokumentazioa aurkeztu ondoren.** Bestela, plaza hutsik geratuko da.

BAJAK: bajak izena emateko aldiaren ondoren suertatzen badira, kuotaren zenbatekoaren %80 itzuliko da udal instantzia baten bidez, baldin eta baja eskatzen den astearen **aurreko asteazkenaren aurretik** jakinarazten bada.

ZARBITZUAREN ERABILERAN ALTAK ETA/EDO ALDAKETAK UZTAILEAN: zerbitzuaren erabileran aldaketak egiteko, aurreko asteko asteazkenera arte jakinarazten ahalko da.

INFORMAZIO BILERA: ekainaren 17an, astelehena, 17:00etan, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 948 165651 telefono zenbakira deitu edo FAZera jo (Urbasa kalea, 129, Sarriguren) [caf @ egues.es](mailto:caf@egues.es)